



# Nobilladak 2016

## Novilladas 2016

Hiru zezenketa egin ziren, abuztuaren 16, 18 eta 19an Debako zezen plaza bitxian. Lehen karratua bazen ere, orain laukizuzena da eta urtero-urtero bezala zaindairiaren jaietan zezen ikuskizunak ospatzeko muntatu zen. Hirugarren zezenketa Debadarrak herriko zezenzale taldearen konpromisoa eta laguntza ekonomikoari esker egin zen.

Plazako harmailetan ikusleen segurtasuna eta eserlekuetarako sarbidea hobetzen duten berrikuntza lanek jarraipena izan zuten. Lan garrantzitsuenak preferentziako harmailetan egin ziren eta ikusleek positiboki baloratu zituzten.

Plazako hondarra ere desberdina izan zen, lehen Oriotik ekartzen zen baina 2016an Gasteiztik ekarri zen. Zezenplazaren egoera hobetu egin da, zezenkoak hondar mota honetan hobeto ibiltzen baitira.

Aurreko urteetan bezala, zezen-aholkulari gisa **Luis Mari Pastor** izan genuen eta albatari aholkulari lanak **Isidro Aristi**ren ardurapean egon ziren. **Oscar Vitoria** izan zen plaza garbitu, paseilloa zuzendu eta lehendakariak jaurtitzen dituen giltzak jaso zituen aguaziltzoa. Txukun bete zuen lana giltzak toriletako arduradunei emanaz. Bikain aritu ziren **Aiert Alba** eta **Jon Esnaola** torilerok, eta baita hondarra zabaltzen aritu zirenak, zezenak arrastean atera zituztenak eta gainontzeko langile guztiak ere.

Zezen ikuskizunetako musikari dagokionez, musika bandak lan gehiago izan zuen hirugarren zezenketan, zezenhiltzaile izangaiek sartu baitzituzten banderillak. Lizarrako gaiteroek, berriz, ohiko maila bikaina erakutsi zuten.

Azken urteetan Arratibel harakinak erosten zituen zezenkoak, oraingoan aldiz ez zituela erosiko esan zion udalari eta salmentarako alferrikako hainbat kudeakea egin ziren arren, erraustu egin behar izan ziren.

En el bellissimo entorno que ofrece el genuino coso taurino de Deba, una original plaza rectangular, antes cuadrada, que se monta cada año para celebrar los festejos taurinos que se organizan durante las fiestas patronales, se verificaron tres novilladas los días 16, 18 y 19 de agosto. La organización de la tercera novillada fue posible por el compromiso y la colaboración económica de la peña taurina local Debadarrak.

En los tendidos de la plaza se siguen realizando mejoras que redundan, de manera notable, en una mayor seguridad para los espectadores y que permite el acceso a las localidades de forma muy cómoda. Este año las mejoras más importantes en el tendido de preferencia que fueron valoradas de forma muy favorable por el público asistente.

También se cambió la arena de la plaza, que se adquirió en Vitoria-Gasteiz, antes se traía de Orío, mejorando el estado del coso ya que los novillos se agarraban mejor con este tipo de arena.

Ejerció de asesor taurino, como lo años precedentes, **Luis Mari Pastor** y la responsabilidad de las labores de asesor veterinario estuvieron bajo la batuta de **Isidro Aristi**. **Oscar Vitoria** fue el alguacilillo encargado del despejo de plaza, de dirigir el paseillo y de recoger las llaves de la presidencia, lo que hizo de forma perfecta, para entregarlas a los encargados de toriles. El trabajo de todos ellos, incluidos los torileros **Aiert Alba** y **Jon Esnaola**, los areneros, los encargados del arrastre y el resto del personal de plaza fue impecable.

En el apartado musical de los festejos, la banda de música, que tuvo trabajo extra en la tercera novillada, en la que banderillearon los aspirantes a matadores, y los gaiteros de Estella en su excelente nivel habitual.

Arratibel, carnicero que en los últimos años compraba los novillos para la venta de carne, informó al Ayuntamiento que este año no podía hacerlo, por lo que, después de varias gestiones infructuosas para su venta, debieron ser incinerados.





Pablo Atienza

## Hilaren 16ko zezenketa

San Roke eguneko nobilladan, sargori, plaza ia bete zen, eguzki harmailetan tokiren bat gelditu zen. Hala ere, ohikoa izaten denaren kontra, plazako giroa hotza, bai harmailetan eta baita udaletxeko balkoian ere.

Nobilladako lehendakaria **Asensio Esnaola** izan zen, Debako **“Periko-Txato”** familia ezaguneko kidea. Udalak omenaldia egin nahi izan zion, M. Belen txalupa Mutrikura doan zubiko errotondan jartzeko eman izanagatik. Zuzen bete zuen bere lana.

Lau zezenko toreatu ziren, Tamameseko (Salamanca) Puerto de San Lorenzokoak 1.a eta 4.a eta Ventana del Puertokoak 2.a eta 3.a. Oro har, itxura onekoak, nahiz eta lehenengoa txordoa eta txiki samarra izan. Laurek joko oso ona eman zuten baina hirugarrena nabarmendu zen. Zezenko aparta. Finkotasun handia zuen eta lauhazka bizian jotzen zuen muletarrantz. Faenaren hasieratik bukaeraraino burua makurtuta, muleta literalki irentsiz eta erasoan etengabe. Txalo ugarien artean eman zion plazari buelta. Laugarrena ere, zezenko bikaina izan zen. Pitin bat ahuldu bazen ere, bi adarretatik ongi oldartzen zen. Arrasteen zezen guztiak izan ziren txalotuak.

Turkesa eta urre kolorez jantzita, Segoviako **Pablo Atienzak** oso gaizki hil zituen bere bi zezenkoak. Isiltasuna abisua jaso eta gero eta isiltasuna, plazaburuaren bi mezu hartu ostean. **Jesús Muñoz**, Puebla del Riokoa (Sevilla), tabako eta urre kolorez jantzita irten zen. Hiru ziztada ondoren estokada erdi aurreratu bat sartu zuen, plazari buelta eta ziztada bat sartu eta gero estokada erdia toki onean, agurrak.

**Pablo Atienza** Esau Fernandez zezen-hiltzailearekin etorri zen. Aholkulari moduan izan zuen plazan. 2013an toreatu zuen Deban eta toreatzen hobetu duen arren, bere bi zezenetan ezpatarekin erakutsitako trebezia falta ikusita, ez du etorkizun errazik izango. Lehenengo zezenean brindisa zerura begira egin zuen, 2009an Deban toreatzen izan zen eta iaz Teruelen zezenak harrapatuta hil zen **Victor Barrio** Segoviako toreatzailearen omenez. Lehenengo zezenean txukun aritu zen, pase multzo interesgarriak eman zituen eskuin adarretatik eta pase naturalekin ondo toreatu zuen, batez ere ausardia handiz bukatu zuen pase multzo batean. Ziztada sakona, estokada erdia eta deskabelloarekin zortzi aldiz saiatu zen. Bigarren zezenkoa, toreatzaileak deitu eta ziztu bizian joan zen muletarrantz, burua makurtuta eta gelditu gabe erasoan. Ezkerreko adarretatik ere berdín, gogoz eta zintzotasunez. Toretzailea ez zen gaizki ibili, baina une batzuetan, zezena toreatu baino zezenkoaren ondoan jarri eta zezenari segituz aritu zen. Zezenkoa nekazina zen eta erasoan jarraitu zuen lehia irabaziz. Ezpata oso gaizki erabili zuen, merezi zituen sariei buruzko zalantza guztiak argi utziz.

Pablo Atienzaren kuadrilla bikain aritu zen, trebetasun handia erakutsiz eta zezenei banderillak dotoreziaz sartuz.

## Novillada del día 16

En la novillada del día de San Roque, con un tiempo caluroso, la plaza estuvo prácticamente llena, con algún hueco en las localidades de sol. Sin embargo, contra lo que viene siendo habitual, se apreció un ambiente frío, tanto en los tendidos como en el balcón de autoridades.

Presidió la novillada **Asensio Esnaola**, conocido debarra de la taurinísima familia de **“Perico Txato”**, que fue homenajeado por el Ayuntamiento al que, de forma altruista, ha cedido la lancha M<sup>a</sup> Belén, que está instalada en la rotonda de acceso al puente de conexión con la vecina localidad de Mutriku. Estuvo acertado en su labor.

Se lidiaron cuatro novillos de las Ganaderías de Puerto de San Lorenzo (1<sup>o</sup> y 4<sup>o</sup>) y de la Ventana del Puerto (2<sup>o</sup> y 4<sup>o</sup>) de Lorenzo Fraile Martín de Tamames (Salamanca), bien presentados en general aunque el primero era cornigacho y algo terciado. Dieron muy buen juego los cuatro, destacando el tercero, un excelente novillo con gran fijeza y que acudía a la muleta con un galope vibrante. Humilló desde el principio hasta el final de la faena, un novillo que se comía literalmente la muleta y que no paró de embestir. Recibió el premio de la vuelta al ruedo entre grandes aplausos de los espectadores. Su nombre **“Orfebre”**, negro mulato de la ganadería de la Ventana del Puerto. También fue un gran novillo el cuarto de la tarde, que embistió muy bien por los dos pitones, aunque blandió un poco. Todos los novillos fueron aplaudidos en el arrastre.

**Pablo Atienza**, de Segovia, de turquesa y oro, mató muy mal a sus dos novillos, silencio después de un aviso y silencio con dos recados de la presidencia. **Jesús Muñoz**, de Puebla del Río (Sevilla), de tabaco y oro. Media estocada delantera tras tres pinchazos, vuelta al ruedo y media en buen sitio tras pinchazo, saludos.

**Pablo Atienza** vino acompañado del matador de toros Esaú Fernández, que ejerció de consejero en la plaza. Ya había actuado en Deba el año 2013 y reconociendo que ha mejorado en su concepto del toreo, no es fácil su futuro con el pobre manejo de la espada del que hizo gala en sus dos novillos. En el primero brindó al cielo en recuerdo de **Victor Barrio**, el torero segoviano muerto en Teruel como consecuencia de la cogida de un toro y que había actuado como novillero en Deba el año 2009. Estuvo digno en este primer novillo dando un par de series interesantes por el pitón derecho y toreando bien al natural, sobre todo una serie que culminó con un desplante muy torero. Pinchazo hondo, media y ocho descabellos. En su segundo novillo, el mejor de la feria, brindó a **Fernando Pastor**. Cuando le citó el torero, el novillo acudió presto a la muleta, humillando y embistiendo de forma incansable. Lo mismo por el pitón izquierdo, con celo y nobleza. No estuvo mal el novillero, pero en momentos más que torear acompañó al toro y el eral, incansable, seguía embistiendo ganando la partida. El malísimo uso de la espada, despejó cualquier duda sobre los trofeos que merecía el toreo de Pablo Atienza.

Excelente y muy solvente la cuadrilla de Pablo Atienza, que lidiaron y banderillearon primorosamente a los dos novillos.



Jesús Muñoz

**Jesus Muñoz** Sevillako La Maestranza plazako Balio Berrien Sustapen Zikloko finalista izatetik zetorren, eta Camaseko eskolan lehen pausuak eman eta gero Sevillakoan aritutako nobilleroak ikusmina sortu zuen. Bi zezenko on izan zituen arren, ez zuen egunkarietako kritikek eranstean zioten toreatze boteretsu eta adoretua erakutsi. Txukun aritu zen baina bere zezenkoek eskaintzen zituzten aukeren azpitik. Beharbada, egun txar bat besterik ez zen izan.

Badajozeko **Alberto Blanco** sobresalientea, gogotsu aritu zen lau zezenkoei hainbat kite eginez, dotoreziaz, lehenengoari emandakoetan izan ezik; lehen zezenean borondate ona bai, baina ez zuen asmatu.



Javier Gallardo

### Hilaren 18ko zezenketa

Feriako bigarren zezenketan, plaza ia ia bete zen, balikoetan ere jende asko. Bero zegoen.

**Alazne Txurruka Allika** izan zen zezenketako lehendakaria, lan ona egin zuen.

Udaletxeko balkoian **Lorenzo Fraile Martín** ganaduzaina, udalari nobilleroak aukeratzen eta kontratatzen laguntzen aritzen den **Juan Carlos Carreño** eta **Kanboko** ordezkariak egon ziren.

Ventana del Puertoko lehenengo zezena izan ezik, beste guztiak Puerto de San Lorenzo ganadutegikoak izan ziren. Ongi aurkeztuak, laugarrena, zezen pinto ederra, eskuinaldetik adarmakurra zen. Joko eta portaera ezberdina izan zuten. Toreatzaileentzat lehenengoa eta laugarrena onak eta bigarrena eta hirugarrena mantsoak, zakarrak eta zailak. Lehenengoa eta laugarrena arrasteen txalotuak izan ziren.

Toledoko zezen eskolako **Javier Gallardo**, gorribizi eta urre kolorez jantzita irten zen (belarri bat); hiru ziztada, estokada erdia eta deskabelloarekin bi saiakera (isiltasuna bi abisu jaso eta gero). **Juan Antonio Lauri**, Malagako Alhaurin de la Torrekoa, gorri eta urre kolorez, ezpatakada atzeratua (agurrak), estokada erdia toki onean (belarria).

**Javier Gallardo** Toledoko "Domingo Ortega" zezen eskolako ikaslea da. Bi zezenko guztiz ezberdinak izan zituen aurkari. Lehenengoa zezen ona zen, kapotearekin ongi toreatu zuen eta muletarekin behar zuen distantzia eman eta pase multzo onak lortu zituen adar bietatik. Bere kontra, zezenkoak pare bat aldiz armagabetu zuela nabarmendu beharra dago. Oso ondo hil zuen zezen hura. Bigarrena ere, lehenengo zezenarekin egin zuen bezala, publikoari eskaini zion. Oso zezen zaila izan zen, mantsoa eta asmo txarrekoa. Eskuin adarretik ez zuen pase aukerarik ematen eta ezkerreko eskuarekin toreatu zuen ia denbora guztian. Ondoriorik gabeko iraulaldia izan zuen. Adoretu eta irmotasunez toreatu zuen. Itxura ona hartu genion.

**Jesús Muñoz** venía con la vitola de haber sido finalista del Ciclo de Promoción de Nuevos Valores de la plaza de la Maestranza de Sevilla. Había, por tanto, bastante expectación por ver al novillero que diera sus primeros pasos en la Escuela de Camas y, más tarde, en la Escuela de Sevilla. Pero, ante dos buenos novillos, no exhibió el toreo poderoso y de mucho valor que le atribuían las críticas periodísticas. Estuvo digno pero por debajo de las posibilidades que le dieron sus dos novillos. El primero de sus erales, brindó a la banda de música y el segundo al público. Quizás sólo fue un mal día.

El sobresaliente, el pacense **Alberto Blanco**, estuvo muy activo haciendo quite a los cuatro novillos que, excepto el que dio al primero que tuvo más voluntad que acierto, los realizó con variedad y torería.

### Novillada del día 18

Con la plaza casi llena, mucha gente en los balcones y una tarde calurosa se celebró la segunda novillada de la feria.

Presidió el festejo **Alazne Txurruka Allika**, realizó un buen trabajo.

En el balcón de autoridades estuvieron presentes el ganadero **Lorenzo Fraile Martín**, **Juan Carlos Carreño**, colaborador en la contratación de novilleros, y representantes de **Cambó**.

Se lidiaron novillos del Puerto de San Lorenzo, excepto el primero que era de la ganadería de la Ventana del Puerto. Bien presentados, con un precioso novillo burraco, bizco del pitón derecho, lidiado en cuarto lugar. De juego y comportamiento dispar. Buenos para los toreros primero y cuarto; mansos, broncos y difíciles segundo y tercero. Primero y cuarto aplaudidos en el arrastre.

**Javier Gallardo**, de la Escuela taurina de Toledo, de carmín y oro, estocada (una oreja); tres pinchazos, media y dos descabellos (silencio después de dos avisos). **Juan Antonio Lauri**, de la localidad malacitana de Alhaurín de La Torre, de grana y oro, estocada trasera (saludos), media estocada en buen sitio (oreja).

**Javier Gallardo**, de la Escuela Taurina "Domingo Ortega" de Toledo, se enfrentó a dos novillos bien diferentes. A su primero, un buen novillo cuya faena brindó al público, le toreó bien con el capote y con la muleta le dio la distancia oportuna consiguiendo buenas series por los dos pitones. En su debe que el morlaco le desarmó un par de veces. Mató muy bien a este novillo. En el segundo, que también brindó al público, fue un manso muy difícil que tenía malas intenciones, toreó casi siempre con la mano izquierda porque por el pitón derecho no tenía un pase. Sufrió un revolcón sin consecuencias y realizó un toreo de valor y firmeza. Causó una buena impresión.



Juan Antonio Lauri



**Juan Antonio Lauri** Malagako Aldundiko zezen eskolako ikaslea da. Kaparekin oso ongi toreatu zuen emanaldi osoan zehar, taxuz, zintzo eta astiro. Lehen zezena beronika bikainekin hartu eta estokada erdi bikainarekin hil zuen. Oso zezen zakar eta zaila izan zen. Buru-belarri eta ausardia handiz aritu zen, emanaldi serioa eginez. Ezpatakada atzertua sartu eta txalo artean agurtzera irten zen, baina sari handiagoa merezi zuen. Bigarrenean gustu ona, ezagutza eta toreatzeko moduan etorkizun handia duela erakutsi zuen. Kontrako adarretik toreatzeko arrisku handiak hartuz gurutzatu eta pase natural eder askoak eman zituen. Bularreko erremate bikainak eginez nabarmendu zen. Bi zezen guztiz desberdinak toreatu zituen eta etorkizun handiko toreatzaile ona dela erakutsi zuen.

**Alberto Blanco** sobresalienteak harrapaketa itsusia izan zuen bigarren zezenari kitea egiten zion bitartean. Zezen zaila zen. Sorbalda-luxazioa izan zuen eta erizaindegira erretiratu behar izan zen. Medikua aginduz ez zen plazara bueltatu eta ezin izan zuen 19ko nobilladan parte hartu.

### Hilaren 19ko zezenketa

Hirugarren zezenketa, feriako azkena. Plazako eserlekuen hiru laurdena baino gehiago bete zen. Arratsalde beroa egin zuen, euri tantak hirugarren eta laugarren zezenkoetan.

**Oskar Urzelai** Yakartako Plan B jatetxeko sukaldari arduraduna izan zen zezenketako presidentea. Eskerrak eman zizkion Udalari zezenketako burua izateko emandako aukeragatik, beretzako ohore handia izan zela aitortuz. Lan ona.

Udaletxeko balkoian **Lorenzo Fraile Martín** eta **Juan Carlos Carreño** egon ziren berriro.

Puerto de San Lorenzo eta Ventana del Puertoko lau zezenko toreatu ziren. Lehenengoa (Puertokoa), bigarrena (Ventanakoa) eta laugarrena (Puertokoa) toreatzaileentzako egokiak izan ziren, arrasteen txalo ugari jaso zituzten. Hirugarrena, Ventanakoa, zezen mantsoa, zaila eta ibilibide motzekoa izan zen.

55 zenbakidun PELOTITO, zezen mantsoa banderilletan erori arren pase asko izan zituen adar bietatik. Oso luze eta apalduta oldartzen zen. Borroka galdua zuela ikusi zuenean, faenaren amaieran, torilen aterantz bideratu zen. **Arrasteen txalotua.**

129arekin HURACAN, zekor hezigabe eta noblea bi adarretatik luze oldartu zen. **Arrasteen txalotua izan zen.**

ADRIANOK 110 zenbakia zuen, zekor otzan eta zaila izan zen, adar bietatik motz gelditzen zen eta eskuin adarrerantz joateko joera handia zuen. Egia da asko mugitzen zela, defendatu nahian, bere izaera otzanagatik. Ezkerraldeetik pasearen erdian geratu egiten zen, toreatzeilea harrapatu nahian.

147 zenbakiarekin LANGOST, oso zekor ona izan zen. Luze eta finkotasunez oldartzen zen baina ezin izan genuen ezkerraldeetik nolakoa zen ikusi, "el Galok" ez baitzion adar horretatik pase multzo bat bera ere eman. Kapotearekin aritu zirenean bi adarretatik zezen ona zela iruditu zitzaidan. **Arrasteen zezen honek txalo ugari jaso zituen.**

**Juan Antonio Lauri**, alumno de la Escuela de la Diputación de Málaga, toreó muy bien de capa toda la tarde con empaque, verdad y lentitud y recibió al primer novillo con primorosas verónicas que cerró con una gran media. Se enfrentó a un primer novillo muy bronco y difícil. Y lo hizo con entrega y valor en una faena muy seria que, tras la estocada algo trasera, mereció más que el premio de salir a saludar entre fuertes aplausos del público. En el segundo novillo mostró gusto, conocimiento y un prometedor concepto del toreo. Se cruzó sin alivios al pitón contrario dando unos muy buenos naturales. Destacó en los muy buenos remates de pecho que ejecutó. Demostró que es un buen torero con futuro y lo consiguió con dos toros muy diferentes.

El sobresaliente **Alberto Blanco** sufrió una fea cogida en el quite que intentó con el difícil segundo novillo. Las secuelas de la cogida, luxación de hombro, le obligaron a retirarse a la enfermería, no volviendo a la plaza por prescripción médica lo que, por otra parte, le impidió participar en la novillada del día siguiente.

### Novillada del día 19

Con más de tres cuartos de entrada en la plaza, algo más en los balcones, se celebró la tercera y última novillada de la feria. Tarde de calor, cayeron algunas gotas en el tercer y cuarto novillo.

Presidió la novillada el cocinero de Deba que ejerce en el restaurante Plan B de Yakarta, **Oskar Urzelai**, quien agradeció el detalle al Ayuntamiento, confesando que para él era un honor que le hubieran elegido para presidir el festejo. Buena labor.

Repitieron presencia en el balcón de autoridades **Lorenzo Fraile Martín** y **Juan Carlos Carreño**.

Se lidiaron cuatro novillos del Puerto de San Lorenzo y de la Ventana del Puerto. El primero (del Puerto), el segundo (de la Ventana) y el cuarto (del Puerto), con los matices que veremos, fueron buenos novillos que sirvieron para los toreros. El tercero (de La Ventana) fue un novillo manso, difícil y de corto recorrido.

Nº 55 PELOTITO, un novillo mansito que se dolió en banderillas, pero que tuvo muchos pases por los dos pitones. Embestía muy largo y humillado. Cuando sintió que había perdido la pelea, ya al final de la faena, se fue a la puerta de toriles buscando la querencia. **Aplaudido en el arrastre.**

Nº 129 HURACAN, un novillo bravo y noble que embistió con largura por los dos pitones. **Aplaudido en el arrastre.**

Nº 110 ADRIANO, un novillo manso y difícil que se quedó corto por los dos pitones y se acostaba mucho por el pitón derecho. Es cierto que se movió, pero se defendía por su naturaleza de manso. Por el pitón izquierdo se paraba a media embestida queriendo coger al torero.

Nº 147 LANGOST, fue un novillo muy bueno. Embestía largo y con fijeza, aunque no pudimos ver como era el pitón izquierdo con la muleta porque "el Galo" ni siquiera intentó una serie por ese pitón. En el capote de los novilleros y de los lidiadores me pareció que era bueno por los dos pitones. **El novillo fue aplaudido con fuerza en el arrastre.**



José Rojo

**Jose Rojo**, Trujillokoa (Caceres). Madrilgo zezen-eskolako ikasleak urdin ilun eta urre kolorez jantzita toreatu zuen. Hiru ziztada eta kontrako aldera estokada erdi aurreratua sartu ondoren, hirugarren deskabelloarekin hil zuen (abisua jaso eta gero agurrak); estokada eta deskabelloa (belarri bat). Yukataneko (Mexiko) **Andre Lagravere** “el Galo” arrosa eta azabatxex jantzita irten zen. Ezpatarekin sartu-atera bat, ezpatakada kontrako aldera, ezpatakada erdia (txaloak); ziztada eta ezpatakada erori samarra (belarria).

**Jose Rojo**, Madrilgo eskolako zuzendarietako batekin etorri zen, Jose Luis Bote zezen-hiltzailearekin. Nobilleroari aholkuak ematen aritu zen. Kapotearekin ondo toreatu zuen. Banderillak fundamentuz sartu zituen nahiz eta zezenak kitean pare bat aldiz harrapatu. Zozketan zezen ona egokitu eta faena belauniko hasi zuen, zenbait pase multzo on ere eman zituen. Sariak ezpatarekin egindako hutsengatik galdu zituen. Ikusleek eskatuta agurtzera atera zen. Bigarrenean, adore handia zuela erakutsi zuen. Arratsaldeko zezen zailena izan zen eta ikusleei eskaini zien. El Galok egindako kiteari lopezinekin erantzun eta errematea egiten ari zela zezenak iraularazi egin zuen. Ausardiaz toreatu zuen, pase naturalak sakontasun ukituekin eginez. Ezker adarretik belauniko toreatzen saiatu zenean berriro izan zen iraulia. Belarri bat izan zuen sari moduan.

**Andre Lagravere** “el Galo” bere aitarekin etorri zen. Michel Lagravere frantziarra zezen-hiltzailea izan zen eta 1982an, nobillero zebilen garaian, Deban toreatu zuen. **Michelito** zezen-hiltzailearen anaia da, toreatzailerik gazteena alternatiba hartzen. Bere lehenengo zezenkoan ondo ibili zen kapotearekin. Banderillak ongi sartu zituen. Muletarekin berriz eskuin adarretik hasi zuen faena, arruzinaren bat eginez. Ezker adarretik saiakera bakarra egin zuenean zezenak irauli egin zuen eta ordutik aurrera Andre Lagravere “el Galo”k ez zuen berriro ere arratsalde osoan pase naturalik eman. Faena manoletinekin bukatu zuen. Zezenkoa oso gaizki hil zuen. Bigarrenean ez zen ondo ibili kapotearekin. Aurkakoari banderillak bien artean sartzeko gonbita egin zion eta gaitasun handiz egin zuten. Eskuin aldetik pase multzo onak eman zituen, gustu onez, sakontasunez eta trebeziaz toreatuz eta nobilleroek ohi duten bezala zezenari ausardiaz dotore aurre eginez. Ez zuen ezkerreko eskuarekin pase bat bera ere eman. Belarri bat moztu zuen.

Alberto Blancok min hartu eta Salamancako eskolako **Alexis Sendin** nobilleroa izan zen ordezeko sobresaliente, aurrez ere hainbat urtetan sobresaliente izandakoa da.

Laburbilduz, antolaketa eta ikusle kopuru aldetik feria ona izan da, eta hobeagoa zezenen aukeraketa aldetik toreatzaileenetik baino.

**José Rojo**, de Trujillo (Cáceres) y alumno de la Escuela Taurina de Madrid, de azul marino y oro, tres pinchazos, media estocada delantera y contraria y muerte al tercer descabello (saludos tras un aviso); estocada y descabello (una oreja). **André Lagravere** “el Galo”, de Yucatán (Méjico), de rosa y azabache, metisaca, estocada contraria, media estocada (aplausos); pinchazo y estocada caída (oreja).

**José Rojo** vino acompañado de uno de los directores de la Escuela de Madrid, el matador José Luis Bote, que estuvo dando consejos al novillero. Toreó bien con el capote, “el Galo” utilizó su derecho al quite que José Rojo intentó replicar siendo cogido aparatosamente pero sin consecuencias. Banderilleó con solvencia aunque fue cogido en un par al quiebro. Le tocó en suerte un buen novillo al que inició la faena de rodillas y con el que dio algunas buenas tandas. El fallo con los aceros le hizo perder algún trofeo. El público le hizo saludar. En su segundo novillo, el más complicado de la tarde y que brindó al público, demostró mucho valor. Respondió al quite de “el Galo” con unas lopecinas y fue revolcado al rematar. Se lució con las banderillas. Toreó con decisión dando unos naturales con cierta hondura. Intentó torear de rodillas por el pitón izquierdo y sufrió otro revolcón. Fue premiado con una oreja.

**André Lagravere** “el Galo”, acudió a Deba acompañado de su padre, el ex matador de toros francés Michel Lagravere, que había toreado en Deba en su etapa de novillero el año 1982. Es hermano del matador de toros **Michelito**, el torero más joven en coger una alternativa. En su primer novillo estuvo bien con el capote, pero fue cogido al responder al buen quite por verónicas realizado por José Rojo. Banderilleó bien. Con la muleta comenzó la faena por el pitón derecho, dando alguna arrucina. André Lagravere “el Galo” sufrió un revolcón en su primer novillo en la primera y única serie que intentó por el pitón izquierdo y ya no volvió a dar ningún natural en toda la tarde. Cerró la faena con manoletinas. Mató muy mal a este novillo. Saludó al público. En el segundo, que brindó al respetable, no estuvo bien con el capote y no quiso responder a un quite por verónicas de José Rojo. Invitó a su oponente a banderillar al alimón, lo que hicieron con solvencia a pesar de que “el Galo” pasó algunos apuros en el último par. Hizo una faena con buenas series por la derecha, con hondura y torería y se adornó con desplantes muy en novillero. No dio ningún pase con la mano izquierda. Tras la muerte del novillo la presidencia le concedió una oreja por petición mayoritaria pero, a pesar de la insistencia de una parte del público, no le concedió la segunda con muy buen criterio.

Actuó de sobresaliente sustituyendo al lesionado Alberto Blanco, el novillero de la escuela de Salamanca **Alexis Sendin**, que ya había sido sobresaliente en años precedentes.

En resumen, una feria que ha estado bien en el apartado de la organización, en la asistencia de público y mejor en el apartado de toros que en el de toreros.



André Lagravere